



ZIZURKILGO UDALA

**ZIZURKILGO "PLAZA ETXEBERRI"
TABERNA-JATETXEAREN USTIAKETA
PROZEDURA IREKIZ KONTRATATZEKO
BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.**

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Zizurkilgo "Plaza Etxeberri" Taberna-Jatetxearen ustiapenaren kontratazioa arautzen duten administrazio-baldintzen agiriko 2. klausulan zehaztutakoa.

2. USTIAKETARAKO BALDINTZAK

2.1. Xedea.

Kontratuaren xedeko lokala Taberna-Jatetxea jarduerarako soilik erabili beharko da.

Betebehar hori bete ezean, Udalak eskumena izango du kontratua bertan behera uzteko, inolako kalteordainik ordaindu behar izan gabe.

2.2. Kontratuaren iraunaldia.

Kontratu hau arautzen duten baldintza administratibo berezien agiriko 3. klausulan aurreikusitakoa.

2.3. Gastuak eta Inbertsioak

Esleipendunaren kontura izango da taberna-jatetxearen instalazioen zaintza, bai eta etengabe eta modu onean funtzionatu ahal izateko egin beharreko mantentze-lanak ere. Halaber, bere kontura izango dira beharrezkoak diren konponketak eta mantentze-lanak, arrazoia eta gastuaren zenbatekoa edozein izan arren. Nolanahi ere, esleipendunak ordaindu beharko ditu honako gastu hauek:

- a) Obra eta instalazioen mantentze-lanak.
- b) Kalteen konponketa.
- c) Ur hornidura, argindarra, gasa, telefonoa, etab. eta dagozkion zergak.
- d) Zabor eta hondakin-uren hustuketa.

**PLIEGO DE CLAUSULAS TECNICAS
PARA LA CONTRATACION DE LA
EXPLOTACION DEL BAR-RESTAURANTE
"PLAZA ETXEBERRI" DE ZIZURKIL POR
PROCEDIMIENTO ABIERTO.**

1. OBJETO DEL CONTRATO

Es objeto del contrato el especificado en la cláusula 2 del Pliego de condiciones administrativas que rige la contratación de la explotación del Bar-Restaurante "Plaza Etxeberri" de Zizurkil.

2. CONDICIONES DE LA EXPLOTACION

2.1. Destino.

El local objeto del contrato, deberá utilizarse exclusivamente a la actividad de Bar-Restaurante.

El incumplimiento de esta obligación facultará al ayuntamiento a dejar sin efecto el contrato sin que proceda en tal caso indemnización alguna.

2.2. Vigencia del contrato.

De conformidad con lo previsto en la Cláusula 3 del Pliego de Condiciones Administrativas Particulares que rigen este contrato.

2.3. Gastos e Inversiones

La conservación de las instalaciones de la parte del edificio destinado a bar-restaurant y su mantenimiento en constante y perfecto estado de funcionamiento correrán a cargo del adjudicatario, debiendo éste efectuar a sus expensas las reparaciones y trabajos de entretenimiento necesarios, cualquiera que sea su importe y causa. En todo caso, serán de cuenta del adjudicatario los gastos siguientes:

- a) Entretenimiento de las obras e instalaciones.
- b) Reparación de desperfectos.
- c) Suministro de agua, energía eléctrica, gas, teléfono, etc. y cuantos tributos correspondan.
- d) Evacuación de basuras y aguas

e) Lokalen garbiketa, pintaketa eta apaindura.

Esleipendunari dagokio, era berean, kontratuaren xedeko instalazioak zaintzea eta haien segurtasuna bermatzea.

Esleipendunak ezin izango du obrarik egin, Udaletik dagokion baimenik eskuratu gabe.

Instalazioan egindako azpiegitura-obrak eta hobekuntzak Udalaren jabetzakoak izatera pasako dira.

Instalazio guztiak, hobekuntza eta akzesioekin, Udolari itzuliko zaizkio esleipena amaitzen denean.

2.4. Altzariak

Halaber, Udalak emakidadunaren eskura jarriko ditu, kontratuaren xedeaz gain, instalazioetan dauden ondasunak (altzariak, tresnak, etab.), I. Eranskinetako inbentarioan ageri direnak.

Ustiaketaren garaian, esleipendunaren kontura izango dira garbiketako tresnen eta produktuen gastuak; esaterako, zoru-garbigailuak, erratzak, xaboiak, komuneko papera, etab.

Esleipendunak jarriko ditu edaritegi-jatetxearen jarduerarako beharrezkoak diren tresnak: adibidez, baxera, edalontziak, platerak, hornigaiak, gortinak, ezpain-zapiak eta abar. Nolanahi ere, kontratuak dirauen bitartean, bere kontura izango da hondatutako materiala ordezkatzeko eta konpontzea.

2.5. Jardueraren ustiaketa

Esleipendunak honako betebeharrak izango ditu taberna-jatetxe jardueraren emakidarekiko:

- Esleipendunak urteko egun guztietan ireki beharko du taberna-jatetxea. Gehienez ere, asteko atseden-egun bat hartu ahal izango du.
- Era berean, urteko oporrak direla-eta taberna-jatetxea urtean zehar gehienez ere 30 egun naturaletan itxi ahal izango da, eta egun horiek elkarren segidakoak izan daitezke ala ez. Edonola ere,

residuales.

e) Limpieza, pintura y ornato de los locales.

Corresponde asimismo al adjudicatario la vigilancia y seguridad de las instalaciones objeto del contrato.

El adjudicatario no podrá realizar obras sin la correspondiente licencia municipal.

Las obras y mejoras de infraestructura realizadas en la instalación pasarán a propiedad del Ayuntamiento.

Todas las instalaciones, con sus mejoras y accesiones, revertirán al Ayuntamiento a la finalización de la adjudicación.

2.4. Mobiliario

El Ayuntamiento pone a disposición del concesionario el objeto del contrato, junto con los bienes (mobiliario, enseres, etc.) existentes en las instalaciones y que se reflejan en el Inventario del Anexo I.

Durante el periodo de la explotación serán de cuenta del adjudicatario los gastos por útiles y productos de limpieza, tales como fregonas, escobas, jabones, papel higiénico, etc.

El adjudicatario suministrará los utensilios necesarios para la actividad del bar-restaurante: la vajilla, los vasos, los suministros, las cortinas, las servilletas, etc. Además, durante el periodo de la explotación, serán de cuenta del adjudicatario la reposición y el arreglo del material estropeado.

2.5. Explotación de la actividad

Serán obligaciones del adjudicatario en relación con la prestación de la actividad de bar-restaurante las siguientes :

- El adjudicatario queda obligado a mantener abierto al público el bar-restaurante todos los días del año, pudiendo realizar un día de descanso semanal como máximo.
- Asimismo, podrá cerrarse el bar-restaurante con motivo de vacaciones anuales por un periodo máximo de 30 días naturales al año, días que pueden ser consecutivos o discontinuos. En todo caso deberá

establezimenduak irekita egon beharko du Zizurkilgo jaietan zehar, eta aipatutako ospakizun horietan zehar ezin izango da asteko atseden egunik egin.

- Taberna-jatetxea irekitzeko eta ixteko ordutegia indarrean dagoen legediak finkatutakoa izango da.
- Ustiaketa honetatik eratorritako gastu guztiak ordaintzea (edonolako zergak, hornidurak eta zerbitzuak).
- Jarduera garatzean Udalari edo hirugarrenei sortzen zaizkien kalteak ordaintzea.
- Esleipendunak hertsiki bete beharko ditu mota honetako jardueretarako une bakoitzean indarrean dauden osasun-eta elikadura-arloko arau edo xedapen guztiak. (Elikagaien manipulatzailaren agiria).
- Esleipendunak ezingo du ez erabili, ez eta okupatu ere kontratu honen xedekoa ez den eremurik, Udalak horretarako berariazko baimenik eman ezean.
- Erabiltzen diren produktuek segurtasun- eta osasun-baldintza onetan egon beharko dute, ekoizpenari, merkaturatzeari eta etiketatzeari dagokionez. Era berean, produktuek behar bezala biltegitatuta, ontziratuta eta prestatuta egon beharko dute, eta modu egokian aurkeztu beharko dira.

3. IKUSKAPENA

Udalak bere gain hartzen ditu kontratua ikuskatzeko beharrezko diren ahalmenak, eta, kontratua modu egokian betetzearen, jarraibideak eman ditzake bere teknikarien bidez, kontratuko klausuletan oinarrituta. Nolanahi ere, alkatearen zuzendaritza eta ikuskapen ahalmen gorena errespetatu beharko da beti.

Horretarako, esleipendunak obra eta instalazioen nahiz zerbitzuaren ikuskapena noiznahi egiteko baimena emango die Udaleko agintariei edo bere agente edo funtzionario eskudunei.

permanecer abierto el establecimiento durante la celebración de las fiestas de Zizurkil, sin que coincida el día de descanso semanal con ninguno de los días de dichas celebraciones.

- Los horarios de apertura y cierre del bar-restaurante serán los fijados por la normativa vigente.
- Sufragar todos los gastos derivados de esta explotación (tributarios, suministros y servicios de toda clase).
- Indemnizar los daños que se causen al Ayuntamiento o a terceros en el desarrollo de la actividad.
- El adjudicatario deberá dar estricto cumplimiento a cuantas normas o disposiciones de carácter sanitario-alimentario estén en vigor en cada momento para este tipo de actividades. (Carnet de manipulador de alimentos).
- El adjudicatario no podrá utilizar ni ocupar espacio que no sea el objeto de este contrato, salvo autorización expresa del Ayuntamiento.
- Los productos que se utilicen deberán mantener las adecuadas condiciones de seguridad y salud, en lo que se refiere a la producción, comercialización y etiquetado y a condiciones de almacenamiento, envasado así como manipulación, elaboración y presentación de los platos preparados.

3. INSPECCIÓN

El Ayuntamiento se reserva las facultades necesarias para la inspección del contrato, pudiendo dictar a través de su personal técnico las instrucciones necesarias para su eficaz cumplimiento, con base en las cláusulas contractuales y sin perjuicio de las superiores facultades de dirección e inspección del Alcalde.

A estos efectos el adjudicatario se obliga a permitir en cualquier momento a la autoridad municipal y a sus agentes o funcionarios competentes la inspección de las obras e instalaciones y del servicio.

4. ITZULKETA

Emakida amaitzen denean, instalazioak Udalari itzuliko zaizkio, mantentze-egoera onean.

Horretarako, eta kontratuaren epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago, Udalak teknikariak izendatuko ditu, instalazioak zer egoeratan dauden ikuskatzeko. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen dituen konponketa- eta berrikuntza-lanak aginduko ditu, instalazioak egoera onean mantentzeko.

Goian aipatutako konponketa edo berrikuntza-lanak esleipendunaren kontura izango dira.

Era berean, ustiaketaren xederako erabilitako altzariak Udalaren esku geratuko dira, eta esleipendunak ezingo du inolako ordainik jaso horien truke.

**2019ko uztailaren 22an onartutako Agiria,
188/2019 zenbakiko Alkate Dekretu bidez.**

Idazkaria.



4. REVERSIÓN

Al término de la concesión revertirán al Ayuntamiento las instalaciones en buen estado de conservación.

A tal efecto, y con una antelación mínima de dos meses antes de finalizar el plazo del contrato, el Ayuntamiento designará técnicos para inspeccionar el estado en que se encuentran y ordenará la ejecución de las obras y trabajos de reparación y reposición que estimasen necesarios para mantener aquéllas en las condiciones adecuadas.

Las obras y trabajos de reparación o reposición que deban efectuarse serán de cuenta del adjudicatario.

Igualmente revertirá al Ayuntamiento aquella parte del mobiliario que se halle afecta a la finalidad de la explotación, sin que el concesionario pueda obtener compensación alguna por el mismo.

**Pliego aprobado por Decreto de Alcaldía
nº 188/2019 de 22 de Julio de 2.019**

El Secretario.